

1. GAIA: KOMUNITATEA

1.1. Komunitate kontzeptua

Komunitate kontzeptuak errealitate bat adierazten du non pertsonak elkarrekin bizi baitira, espazio komun batean eta zerbait partekatzen.

Komunitate kontzeptuak askotariko edukiak jaso ditzake ikuspegiaren arabera: historikoa, antropologikoa, soziologikoa, erlijiosoa, etikoa, politikoa, ekonomikoa, ideologikoa edo kulturala.

1.1.1 Ikuspegi soziologikoa

Gizarte zientzietan, komunitatearen ulerkera soziologikoaren eragina izan du. Ferdinand Tonnies, *komunitatea eta gizartea* (1887): komunitatea eta gizartea, gizarte errealitate ezberdina bezalak irudikatu.

Bere helburua, pertsonen arteko harremanak zergatik ematen diren azaltzea izan zen eta komunitate tradizionalak eta gizarte eredu berriak kontrajarri zituen. Testuinguruak garrantzia du bere ideietan: industrializazioa.

Komunitatea	Gizartea
Landa eremuko bizitza (herria)	Hiri bizitza
Familia, tradizioak eta ohiturak oinarri	Arauak (legeak) eta lehiatasuna oinarri ("paktu soziala")
Erljioaren garrantzia	Iritzi publikoaren garrantzia
Sentimenduek, lotura emozionalek eta kontzientziak mugiarazten dituzte harremanak	Norbanakoaren helburu eta interes arrazionalek mugiarazten dituzte harremanak
Komunitateak berak eta elizak betetzen dute kontrol sozialeko funtzioa	Gizarteak berak eta Estatuak betetzen dute kontrol sozialeko funtzioa

Egun, ikuspegi soziologikoak bestelako komunitate motak daudela onartzen du:

- **Odolezkoak:** jatorri biologikoa dute eta primitiboak eta berezkoak bezala hartzen dira.
- **Auzokoak:** landa eremuan zein hiri giroan aurki daitezke.
- Ideologian, adiskidetasunean, elkartasunean, sinismen edo sentimenduen parekotasunean oinarritutakoak.
- **Taldeak edo "tribuak":** gehienetan hiri eremuan aurki daitezke, portaera eta jarrera markatuak dituzte eta kanpora oso irudi berezia eta propioa erakusten dute.
- **Zenbait erakunde sozial:** ikastetxeak, psikiatrikoak, espetxeak...

Komunitate motak bereizteaz gain, ikuspegi soziologikoak komunitateak bete ditzakeen funtzioen azterketara hurbiltzen gaitu. Horien artean hurrengoak azpimarra ditzakegu:

- Sozializazioa: kideen artean ezagutzak, jokabideak eta balioak igorritz.
- Pertsonon parte-hartzea bideratzen du ekintza kolektiboaren bidez.
- Laguntza, elkartasuna, seguritatea, babesa eta identitate soziala ematen die pertsoneri.
- Kontrol soziala: elkarbizitzaren arau sozialak ezarriz eta betearaziz

1.1.2. Gizarte Langintzaren ikuspegia

Lehenik, *Marco Marchioni* (2004) gizarte langile italiarraren arabera, komunitatea lurralde berean bizi diren eta hainbat lotura eta interes komun dituzten pertsonen multzoa da, lau elementuok osaturikoa: **lurraldea, biztanleria, balia bideak eta gizarte eskaria**. Oinarrizko lau elementu horien azterketa egitea beharrezkoa litzateke edozein komunitatean esku-hartu baino lehen.

1) **Lurraldea:** komunitatea kokaturik dagoen espazio fisiko eta soziala da, pertsona multzo batek bizilekutzat duen tokia. Aztertu beharreko aspektuak: kokapena edo espazio geografikoa bera; bilakaera historikoa; ezaugarri ekonomikoak; hirigintza; komunikazioak eta garraio bideak; elkartokiak; zerbitzuak eta komertzioak...

2) **Biztanleria:** komunitatea osatzen duten kideak dira. Haien arteko harremanak mota ezberdinetakoak izan daitezke. Zenbait helburu, interes, ezaugarri eta balio partekatzen dituzte. Kontuan hartzen diren aspektuak: ezaugarri soziodemografikoak, ezberdintasun sozio-ekonomikoak, kultura aniztasuna, genero

harremanak, izaera komunitarioaren nolakotasuna eta komunitate kideen arteko kohesio maila.

3) **Gizarte baliabideak**: komunitate batean aurki daitezkeen baliabideak arlo ezberdinetakoak izan daitezke: hezkuntza, osasuna, enplegua, gizarte zerbitzuak, elkarteak eta herri edo gizarte mugimendu ezberdinak... Batzuk baliabide publikoak eta beste batzuk baliabide pribatuak

4) **Gizarte-eskaria**: komunitatean dauden edo sor daitezkeen gizarte behar eta arazoekin du harremana, eta aztertzeko elementu konplexua izaten da.

Bigarrenik, **Ezequiel Ander-Egg-en** (2006) gizarte langile argentinarraren arabera, komunitatea eremu geografiko jakin batean kokatuta dagoen eta gizarte unitate gisa hautematen den antolatutako pertsonen multzoa da, non kideek ezagurri, interes, helburu edo funtzio komun bat eta kidetasun-kontzientzia baitute; bertan, pertsonak beste edozein ingurutan baino interakzio intentsuagoak dituzte.

Aspektu subjektiboen garrantzia azpimarratzen du. **Pertenentzia** (parte sentitzea), **interakzioa** (elkarrekiko eragina) eta **komuneko kultura** (esanahi konpartituak).

Hirugarrenik, **Cristina De Robertis** (2003) gizarte langile frantsesen arabera, komunitatea haien artean loturak dituzten talde edo kolektiboez osaturik dago. Talde edo kolektiboen bitartez komunitate-mailan parte hartuz pertsonok gure herritar-rola bete dezakegu, bizitza publikoan hartzen diren erabakietan eragina izan, gure eskubideak eta iritzia babestu, eta abar. Horregatik, autore hau gizarte langintza kolektiboaz aritzen da gehien bat.

PARTAIDETZA ETA ANTOLAKUNTZAREN ZENTZUAN HITZ EGITEN DU HERRITAR BILAKATZEKO GARAIAN.

Gizarte Langintzaren ikuspegitik, komunitatearen ezaugarri nagusiak hurrengoak dira:

- Leku geografiko zehatza hartzen du
- Historikoa eta dinamikoa da
- Bertan ohiko giza harreman estuak garatzen dira, denboran jarraipena dutenak
- Kideek testuinguru historiko, sozial, kultural eta ekonomiko berean murgildurik daude eta zenbait interes, helburu, behar, arazo, bizipen eta proiektzio partekatzen dituzte

- Talde ezberdinetaz osatzen da, haien artean interakzioa dutenak eta ekintza kolektiboak aurrera eramaten dituztenak
- Kideek kidetasun-kontzientzia edo pertenenentzia sentimendua garatzen dute
- Gizarte inklusio-maila handia ahalbidetzen du, bertan harremanak intentsitate altukoak baitira

1.2. Komunitatea eta gizarte eta laguntza sareak

Gizarte Langintzan, zenbait autoreek kolokan jarri dute komunitate kontzeptuaren ahalmena profesioaren ikerketa eta esku-hartze subjektua eta objektua izateko. Kritika horien artean hurrengoak daude:

- Komunitate kontzeptua eta horri dagozkion balioak krisian daude, beste balio batzuk nagusituz
- Komunitate kontzeptuak errealitatea gehiegi homogeneizatu eta sinplifikatu dezakeela
- Komunitate kontzeptuak botere-harreman jakin batzuen okultazioa ekar dezakeela, eta, horrekin batera, botere gehien duten eta haien interesak hobekien defendatu ditzaketen taldeen aldetik komunitatearen instrumentalizazioa etor daitekeela
- Komunitatea ideia abstraktoegia dela eta, beraz, esku-hartzearen ikuspuntutik ez-gaitasun operatiboa duela

Gizarte-sarea, pertsonak beren inguruarekin sortzen dituzten harremanen multzoa da. Harreman horien nolakotasunaren arabera, gizarte-sareak **naturalak**, **informalak** edo **formalak** izan daitezke.

Gizarte sareek hiru ezaugarri nagusi:

- 1) Bertan garatzen diren harremanen eragina pertsonarengan luzarokoa izaten da.
- 2) Gizarte-sarean harremanak zuzenak edo zeharkakoak izan daiteke, eta horrek esan nahi du pertsona guztiek ez dutela zertan elkar ezagutu (zeharkako loturak egotea da, hain zuzen ere, sarea talde kontzeptutik bereizten duena)
- 3) Gizarte-sareek ez dute zertan erreferentzia espaziala edo lurraldekoa izan; horrek sarea komunitate kontzeptutik bereizten du.

Gizarte-sarea pertsona batek bere testuinguruarekin sortzen dituen harremanen multzoa bada, *laguntza-sarea* laguntza-funtzioa betetzen duen harreman horien azpimultzoa da. Ondorioz, pertsonon gizarte-sarea handitzen den neurrian, gure laguntza-sarea ere handiagoa izateko aukera dago. Aukera esaten dugu, kontuan hartu behar dugulako gizarte-sare batean harreman guztiek ez dutela zertan laguntzazkoak edo positiboak izan behar.

Laguntza-sarearen efektu positiboak, pertsonak bere gizarte ingurunearekin sortzen duen interakzio horretan elkar trukutzen diren baliabideak dira. Horiek emozionalak, materialak edo estrategikoak izan daitezke.

1.3. Komunitatea testuinguru neoliberallean

Neoliberalismoaren funtsezko tresnak: **pribatizazioa** (arloan publikoari indarra kendu merkatuari emateko), **desarautzea** (jarduera ekonomikoa eta enpresariala kontrolatzen duten arauak ezabatzeko prozesua da, merkatuko indarrek zehaztu dezaten eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka) eta **ajuste politikak edo austeritate fiskala** (gizartearen ongizatean inbertitu ahal diren baliabideen murrizketa).

Eskubideak babesten dituzten arauen adibideak:

- Lan harremanetan: profesioen arteko gutxieneko ordainsaria
- Nekazaritzan: produktuen erosketa gutxieneko prezioan
- Osasunean: medikamentuak komertzializatzeko baldintzak
- Ingurugiroa babesteko arauak
- Ostalaritza: negozioen irekiera eta itxiera ordutegiak

Kapitalismo neoliberalak ondorio kaltegarriak ekarri dizkie gizartearen **bizi-kalitateari eta ongizate-estatuari, baita ingurumenari** ere. Neoliberalismoak herrialde aberastuen eta pobretuen arteko **ezberdintasunak gehiago nabarmendu** ditu. Aldi berean, herrialde bakoitzean talde ezberdinen arteko **desparekotasunak** handitu ditu. Neoliberalismoaren eraginez ezarritako politika sozio-ekonomikoak **tentsio, gatazka** eta arazo sozial ugariaren eragile bilakatu dira, eta poterearen banaketan desoreka eta ezberdintasun nabariak dituzten gizarteak irudikatu dituzte. Era berean, baliabide naturalen ustiaketa eta biodibertsitatearen galera intentsifikatu dute, horrek ere gizarte inpaktu kaltegarriak dituela.

Neoliberalismoaren arriskuak:

- Komunitatea aldarrikatzea Ongizate Estatuaren gainbehera sakontzeko (helb. utilitarista)
- Jeandartean indibidualismoasustatzen jarraitzen du
- Profesionalki, Gizarte Zerbitzuen antolaketak ez du KGL errazten

Gizarte Langintzatik honi alternatiba zera litzateke, **ondasun komunak identifikatzea eta merkantilizaziotik babestea**. Era berean, komunitatea berreskuratzea, baina ikuspegi demokratikotik: honek oinarri **komunitarioa duten partaidetza-prozesuak sustatzearekin zerikusia du**: “prozesu horietan komunitatea edo nahi bada, lurralde zehatz batean inplikaturik dauden gizarte-eragileen sareak izango dira protagonistak prozesuaren definizioan zein garapenean”

2. GAIA: KOMUNITATEKO GIZARTE LANGINTZAREN SORRERA ETA BILAKAERA

2.1. Mendebaldeko esperientzia aitzindariak

Komunitateko Gizarte Langintzaren esperientzia aitzindari batzuk Ingalaterran eta Estatu Batuetan garatu ziren XIX. mendean eta XX. mende hasieran, horien artean: gizarte erakunde pribatuen batzordeen bidezko lan komunitarioa, Settlement mugimenduaren eraginpean sortutako zentro komunitarioak eta Komunitatearen Ongizaterako Kontseiluak.

GIZARTE ERAKUNDE PRIBATUEN LAN KOMUNITARIOA: BATZORDEAK

XIX. mendeko Ingalaterran, kapitalismo industrialaren inpaktuaren ondorioz sortutako behar eta arazo ekonomiko eta sozial anitzei erantzuteko asmoz sortu ziren gizarte erakunde pribatuak, horietatik handiena eta ezagunena Charity Organization Society (COS). Erakunde horren baitan gizarte behar eta arazoen jatorriari buruz bi pentsamendu ildo kontrajarriz joan ziren, eta horren arabera bi esku-hartze eremu garatu ziren. COSen eratzailak Octavia Hill eta Edward Denison-ek emandako bi ildo edo pentsamendu kontrajarri plazaratu zituzten. Eztabaidak ematen hasi ziren: eta horrela batzordeak sortu Lan komunitarioaren hastapena; BATZORDEAK.

Alde batetik, behar eta arazo sozialen jatorria batez ere pertsonen **barne-faktoreetan** (faktore pertsonalak) kokatzen zutenen arabera, pertsonen “ahultasunak” eramaten ditu beharrak eta arazoak izatera, eta, beraz, haien egoera hobetzeko bere jarrerak eta portaerak aldatu behar dituzte. Aldaketa hori lortzeko, pertsonaren eta “bisitari-lagunaren” arteko harreman pertsonala garatu behar zela defendatzen zuten. Lan egiteko modu honetatik, banakako esku-hartzea garatuz joan zen (casework).

Bestetik, behar eta arazo sozialen jatorria batez ere pertsonen kanpoko faktoreetan (faktore sozialak) kokatzen zutenen arabera, gizartearen antolaketa da gehiengo bat pobreziara daramatzana, eta, beraz, gizartean aldaketa estrukturalak proposatzen zituzten. Hain zuzen, pentsamendu ildo honetatik COSen barnean esku-hartze komunitarioa garatzen hasi zen, arreta jarriz baldintza sozialen hobekuntzan. Horretarako, batzordeen bidezko ekimenak bideratu ziren batez ere: adibidez, osasun-laguntzarako batzordeak, umeen arretarako batzordeak, ospitaletan laguntza emateko batzordeak, eta abar, sortzen hasi ziren.

Gizarte erakunde pribatuetan garatutako ekintza bide ezberdin horien ondorioz, Gizarte Langintzan egun ezagutzen ditugun esku-hartze mailak bereiztuz joan ziren apurka (banakakoa, taldekakoa eta komunitatekoa).

SETTELEMENT MUGIMENDUA: ZENTRO KOMUNITARIOAK

Lehenengo “zentro komunitarioa”, 1884.urtean sortu zuten, Londreseko auzo pobrenean kokatuta, auzokideak laguntzeko asmoz. Bertan pertsona pobretuak eta unibertsitateko graduatuak elkarrekin bizi ziren.

Egoitzen helburuak hiru ziren:

- Pertsona pobretuek hezkuntza, kultura eta osasun maila handitzea
- Unibertsitatean graduatutako gazteek pobretuen bizi-baldintzen berri izatea eta gizarte-erreformen beharrei buruz kontzientzia hartzea
- Biztanleria orokorrean arazo sozialen inguruan ohartaraztea

Horrelako zentro komunitarioak Ingalaterra osoan zehar zabaldu ziren, eta geroago Ipar Amerikan ere Jane Addams gizarte langilearen eskutik. Komunitate Gizarte Langintzari egindako ekarpenari begira, esan daiteke, Settlement mugimendua komunitatearen baliabide potentzialak ustiatzearen adibidea izan daitekeela, hau da,

komunitate kideek beraiek dituzten ahalmenak, gaitasunak, aukerak... aktibatzearena.

KOMUNITATEAREN ONGIZATERAKO KONTSEILUAK: KOMUNITATE ANTOLAKETAREN HASIERA

1920ko hamarkadatik aurrera, gizarte-arazoei erantzuteko ekintza komunitarioak martxan jartzen hasi ziren tokiko mailan. Ekimen horien kudeaketarako Komunitatearen Ongizaterako Kontseiluak sortu eta azkar hedatu ziren herrialdean.

Kontseiluen helburu nagusiak:

- Komunitatearen ongizaterako ekintzen koordinazioa bultzatzea
- Gizarte-agentzia publiko eta pribatuen arteko kooperazioa lortzea
- Zerbitzuen maila mantentzea eta hobetzea
- Ongizatea lortzeko komunitateetako kideen ahalmena garatzea

Kontseiluekin batera, gizarte-agentzia ezberdinetarako finantziazio-iturriak lortzeko eta agentzien artean diruaren birbanaketa planifikatzeko Komunitateko Kutxak sortu ziren. Esan daiteke, Kontseiluen esperientziak Komunitateko gizarte-langintzari eginiko ekarpen nagusia zera dela: eragile ezberdinen arteko kooperazio eta koordinazio printzipioak bereganatzea. Testunguru honetan, “komunitate antolaketa” espresioa erabiltzen hasi, eta, apurka, lanbide gisa hartu zen Gizarte Langintzaren baitan.

Horrekin batera, pentsamendu korrante sozialistatik hurbilago kokatzen ziren komunitatearen antolaketaren moduak ere aurki ditzakegu ingurune eta garai horretan. Adibide argia da Saul Alinsky eta komunitatea antolatzeko bere metodoa

2.2. Esperientziak nazioartean: komunitate garapenaren hedapena

Garapen komunitarioa: biztanleriaren eta horren gobernuaren esfortzuak elkartzen dituen prozesua da, komunitatearen baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalak hobetzeko, nazioaren bizitzan integratzeko eta nazioaren aurrerapenean laguntzeko.

Komunitate garapena batez ere “garapen-bidean” zeuden herrialdeetan erabiltzen hasi. Komunitateen hobekuntza integrala bultzatzen duen planteamendu teoriko metodologikoa litzateke, industrializazio- eta aurrerapen-prozesuak bultzatzeko asmoz.

Komunitate garapenaren tresna nagusia, arlo ezberdinetan gauzatutako proiektuak dira.

2.3. Latinoamerikako birkontzeptualizazio-mugimendua

1960ko hamarkadaren amaieran, Latinoamerikako Gizarte Langintzaren baitan mugimendu berri bat sortu zen, birkontzeptualizazio-mugimendua. Gizarte Langintza goitik behera “berriro pentsatzeko” beharra azpimarratu zuen, profesioaren erabateko eraldaketa proposatuz.

Profesioan ideia eta metodologia berriak sortu beharra agerian utzi zuen eta komunitateen kontzientziazio-prozesuen garrantziari oinarri teoriko eta praktikoa eman zion. Mugimenduaren ezaugarri eta ekarpen nagusi batzuk horrela laburbildu daitezke:

- Errealitatearen deskribapenak ez ezik, errealitate hori azaltzeko analisi politiko-ideologikoak integratzen ditu profesioaren zeregin gisa.
- Esku-hartuko den errealitatearekiko lotura eta konpromiso estua eskatzen du, marjinetuen eta oprimituen daudenen aldeko hautua eginez.
- Gizartea eraldatzeko, praktika politikoa edo politizatua darabil eta ez soilik teknikoa.
- Paradigma eta eragin akademiko kritikoen barruan garatzen da.

PAULO FREIRE (pedagogo Brasildarra)

Herritik sortzen diren hezkuntza formatoak esperimentatzea.

2.4. Komunitateko Gizarte Langintza Espainiar Estatuan

Lehen aztarnak, 1960 hamarkadakoak. Frankismoaren erregimen zapaltzailearen mende garatu zen.

Aitzindari ziren artean bi autore: Marco Marchioni eta Montserrat Colomer.

Marco Marchionik, gaiari buruz Espainiar Estatuan publikatu zen lehen liburuaren egileaz izateaz gain, komunitate garapenerako proiektu ezberdinak jarri zituen martxan; izan ere, lurralde ugari azpigarapen-ezaugarriak zituzten, eta horiek esku-hartze integrala eskatzen zuten.

Montserrat Colomer gizarte langileak esku-hartze komunitarioaren metodologiaren inguruan egin zituen ekarpen garrantzitsuak. Bere lana hiri-inguruetan garatu zuen 1960. eta 1970. hamarkadetan zehar, Bartzelonako auzo baztertuetan hain zuzen. Bere eskutik, Banakako eta Familiako Gizarte Langintza eta Komunitateko Gizarte Langintzaren arteko uztarketa egiteko metodologia garatuz joan zen. Biztanleriaren parte-hartzeari garrantzi handia ematen zion. Haren ekarpenak oso baliagarriak izan ziren hirietan martxan jarriko ziren beste esperientzia komunitario batzuk bultzatzeko.

1990. hamarkadan, instituzio publikoen aldetik esperientzia komunitarioak sustatzen hasi, Europa Batasunatik pobrezia aurre egiteko helburuarekin heltzen ziren funtsak eta planifikatzen ziren programak erabiliz.

2000. hamarkadatik aurrera, Komunitateko Gizarte Langintzaren instituzionalizazioa sakonduz joan zen: gero eta gehiago, erakunde publikoek Komunitate Planak garatu eta bultzatu dituzte komunitatean esku-hartzeko tresna gisa.

Komunitate Plana, mobilizazio kolektiborako prozesua da, non zenbait gizarte eragilek interes komunen inguruan kontzientzia hartu eta elkarlanean oinarritzen den plataforma batean aritzen dira zonalde baten garapenerako plan bat diseinatu eta gauzatzeko.

Komunitate Planak batez ere auzo mailakoak izaten dira. Integralak edo sektorialak. Planen osaketaren faseak hurrengoak izaten dira: komunitate diagnostiko partehartzailea, identifikatutako gizarte-arazoetan esku-hartzeko planifikazioa, esku-hartzearen gauzatzea eta horren ebaluazioa.

3. GAIA: KOMUNITATEKO GIZARTE LANGINTZAREN EZAUGARRIAK

3.1. Definizioa eta berezitasunak

Komunitate bateko biztanleen ongizatea lortzea helburu duen gizarte-ekintza profesionala, non biztanleen partehartze zuzena eta aktiboa ezinbestekoa baita komunitateari dagozkion arazoan azterketan eta horiei aurre egiteko erabakietan.

Komunitateko Gizarte Langintza komunitatea bera abiapuntu duen prozesua da, ekimen profesionalaren helburuak lortzeko bertako baliabideak eta gaitasunak sustatzen dituen. Komunitatea bera eta bertako kideak izango dira baliabide garrantzitsuenak eta esku-hartzearen subjektuak.

Gizarte-langilearen zeregina da horiek aktibatzea eta mobilizatzea. Hala, esku-hartze komunitarioak eskatzen dio profesionalari “partaidetzaren, elkartasunaren eta elkarbizitzaren baloreak presente egitea” eta pertsonak “laguntzea norberaren eta testuinguruaren kontzientzia hartzen, bai banakakoen eta bai komunitate osoaren ahalmenak sustatuz”.

Komunitateko Gizarte Langintzak, beraz, eredu asistentzialista gainditu eta horren ordez eredu parte-hartzaile bat proposatzen du, zeina herritarren erantzukizunean, inplikazioan eta mobilizazioan oinarritzen baita.

GL tradizionala	Komunitateko GL
1. Pertsona erabiltzailea da.	1. Pertsona komunitate kidea eta herritarra da.
2. Defizientzia eta zaintza azpimarratzen dira.	2. Ahalmena eta garapena azpimarratzen dira.
3. Banakakoan eta honen aldaketan zentratua.	3. Gizarte ingurumena eta honen aldaketan zentratua.
4. Dependentsia:	4. Autonomia/independentsia:
a) Zerbitzura eta zerbitzuen kontsumora orientazioa;	a) Auto-laguntza, auto-promozioa eta elkarrekiko laguntza;
b) Taldeak terapia forma bezala erabiltzen dira;	b) Taldeak, arazo sozialak konpontzeko oinarri bezala erabiliak;
c) Profesionala esku-hartzearen zentruankokatuta dago eta erabiltzailea pasiboa da;	c) Profesionala baliabideetariko bat da eta jendea aktiboa da;
d) Laguntza profesionalean konfidantza;	d) Laguntza ez profesionalean konfidantza;
e) Profesionalek poterea, informazioa eta harremanen kontrola mantentzen dute.	e) Poterea eta informazioa, banaezinak izanik, era horizontalean partekatzen dira.
5. Poterearen iturburu tradizioaletan konfidantza.	5. Poterearen iturburu berriak bultzatzen dira
6. Tokiko komunitatearen historia (aurrekariak) ez da garrantzitsua.	6. Tokiko komunitatearen historian eta ezagutzan oinarritzen den estrategia.

3.2. Xedea

Komunitateko Gizarte Langintzaren xedea, komunitatearen baitan sor daitezkeen gizarte-arazoen gainean aritzea litzateke. Gizarte-arazoen iturriak askotarikoak izan daitezke, baina, laburbilduz, Gizarte-Langintzan batez ere ondorengo hirurei erreparatu egin zaie:

- a) *Desberdintasunak botere-banaketan*: Komunitatearen barneko botere banaketan desberdintasunak eman ohi dira: ekonomikoak, sozialak, politikoak, kulturalak... Boterearen banaketa eta erabilera desigualarekin batera gizarte arazoak eta gatazkak agertzen dira. Kasu honetan, Komunitateko Gizarte Langintzak botere-sistema justuago bat sortzen lagunduko du, botere iturri berriak indartuz edota potere ezberdinen erabilera negatiboak eta baztertzailerak kolokan jarritz.

- b) *Komunikazio eta elkarbizitza arazoak*: Komunikazioa pertzepzioen eta esanahien adostasunaren ondorioa da, eta baldintza sozio-ekonomiko, kultural edo politiko ezberdinetan dauden pertsonen normalean ez dituzte errealitateari buruzko ulerkerak eta pertzepzio berdinak, haien bizi-esperientziak berez desberdinak eta desigualak izan daitezkelako. Kasu honetan, Komunitateko Gizarte Langintzak ezberdinen artean komunikaziorako eta elkarbizitzarako baliabideak eskainiko ditu.
- c) *Beharren eta baliabideen arteko desorekak*: komunitateko kideen beharren eta horiek asetzeko dauden baliabideen arteko aldeari egiten dio erreferentzia ikuspegi honek. Hala, Gizarte Langintzaren xedea behar-baliabide binomioaren arteko desorekaren ondorioz sortutako arazoak gainditzera bideratu behar dela proposatzen da. Xedea beraz, aldakorra edo gizarte errealitate konkretuen arabera izango da. Horregatik, ekimen profesionalak kasuan kasu egoeraren aldagaiak ezagutu eta kontuan hartu beharko ditu.

3.3. Komunitateko Gizarte Langilearen funtzioak

Gizarte langileak komunitatean dauden beharrak eta arazoak herritarrekin batera identifikatzen lagunduko du, horiei erantzuteko komunitateko baliabideak sustatuz. Prozesuan komunitatearekin batera lan egin behar du, komunitatearekin duen harremana jarraia izan behar du, bertan dauden talde eta kolektibo ezberdinekin batera egiten duen lana luzarokoa dela ulertuz.

Gizarte eraldaketa eraginkorra izan dadin, gizarte langilearentzat komunitatearen parte-hartzea eta horren erritmoa errespetatzea ezinbesteko baldintzak dira.

Gizarte eraldaketaren helburua lortzeko metodologiari dagokionez, ikuspegi ezberdinak daude. Historian zehar batez ere bi hauek kontrajarri dira:

- *Ikuspegi tradizional-kontserbadorea*: arazoei aurre egiteko erreforma proposatzen du. Ikuspegi honetan, gizarte-aldaketa erreforman datza, hau da, dagoen errealitatea gradualki aldatzean eta egoeraren arabera neurriak hartzea.
- *Ikuspegi erradikala*: arazoei aurre egiteko, errealitatea errotik eta erabat eraldatu behar dela defendatzen du. Hots, dagoen gizarteerrealitatea aldatu, beste berri bat sortzeko neurri estrukturalak edo egiturazkoak hartuz.

Praktika demokratikoak eta parte hartzea indartu nahi baditu, ikuspegi komunitario batekin lan egiten duen gizarte langileak hurrengo jarrerak izan beharko ditu:

- Justizia soziala izatea helburu
- Arlo publikoaren defentsa
- Komunitatearen autodeterminazioa eta sendotzea
- Komunitateko kideen arteko lankidetzaren sustatzea
- Aniztasun sozial eta kulturalaren defentsa

Gizarte langileak ez du bakarrik esku-hartzen, beste profesional batzuekin elkarlanean egotea nahitaezkoa da.

3.4. Esku-hartze komunitarioaren ereduak

3.4.1. Oinarri teorikoak

Komunitateko Gizarte Langintzan, esku-hartze eredu ezberdinak aurki daitezke eta horien oinarri eta konfigurazioan eragin nabarmena teoria soziologikoen izan dute, batez ere: funtzionalismoa, gatazkaren teoria eta teoria interpretatiboak.

FUNTZIONALISMOA

Kontsentsuaren paradigmaren ildo jarraitzen du. Gizarte ordena, pertsonen arteko akordioa (kontratu edo pakto soziala) baten ondoriozkoa dela ulertzen da, eta gizarte ordena hori mantentzeko estuktura eta instituzio sozialek duten funtzioetan jartzen du arreta. Aldaketa soziala, modu geldo eta ordenatuan ematen dela argudiatzen du.

Metodo positibistaren ezaugarriak dauzka: gizakien arteko harremanak aztertzeo natura-zientzietan egiten den ezagutza-prozesua hartzen da erreferentzia gisa. Aztergai diren fenomenoak deskribapen eta azalpenak datu objektibo eta kuantitatibo bidez bilatzen dira, alderdi subjektiboak alboratuz. Gizarte errealitatean fenomeno uniforme eta erregularrak bilatzen dira, era egokian orokortuta gizarte lege bihurtuko direnak.

Funtzionalismoaren eraginpean garatu diren Komunitateko Gizarte Langintzaren ereduak ezaugarri hauek dituzte: egitura sozialen zentraltasunean dute interesa; egoera sozialak eta gizarte portaerak erregularitatearen eta oreka sozialaren

ikuspuntutik aztertzen dira; hortik kanpoko egoerak edo portaera estereotipikoetara egokitzen ez diren portaerak “disfuntziotzat” edo “desbideratzen” hartzen dira; eta gizarte arazoaren arduraren indibidualizazioa da nagusi.

GATAZKEN TEORIA

Paradigma kritiko-dialektikoaren ildo jarraitzen du. Funtzionalismoaren alternatiba izateko garatu zen. Egitura sozialetan jartzen du arreta. Hala ere, ukatzen du gizarte harremanak ordenean edo kontsentsuan oinarritzen direla; aitzitik, gizartean etengabeko interesgatazkan dauden talde sozialak aurkitzen ditugula argudiatuko du. Gizarte ordena, dominazio posizioan dauden taldeen kontrolean oinarritzen da. Horregatik, gizarte ordena mantentzeko estruktura eta instituzio sozialetan ematen diren dominazioa/opresio botere dinamiketan jartzen du interesa.

Gatazkaren teoriaren barne hainbat pentsamendu korrante garatu dira, adibidez, marxismoa, feminismoa, pedagogia kritikoak, etab. Guztien atzean, dena dela, hausnarketa komun bat sumatzen da: gatazka sozialak ezberdintasun egoeren isla dira eta gizartearen antolaketa moduak du —eta ez gizabanakoak— pertsonen eta komunitateen dituzten arazoaren ardura nagusia. Horrela, apostua gizarte eraldaketaren aldekoa da, hau da, gizabanakoen bizi-baldintza estrukturalen eraldaketa erradikalaren aldekoa. Ildo horretan, aldaketa soziala azkar eta modu desordenatuan ematen da, talde menperatuak menperatzaileak irabazi ahala.

Gatazkaren teorian oinarritzen diren Komunitateko Gizarte Langintzaren ereduak bi alde ezberdintzen dituzte: alde batetik, baliabideak izanik botere-sistema sostengatzen dutenak eta bestetik, sistematik at geratzen direnak.

Gatazkaren teoria Gizarte Langintzako eredu kritikoaren oinarrian legoke; honetan, ez da bilatuko pertsona adaptatzea zapaltzailea den testuinguru batera, baizik eta testuinguru hori erabat aldatzea, askatzailea den esku-hartze bat bilatuz.

TEORIA INTERPRETATIBOAK

Zientziaren paradigma hermeneutikoaren ildo jarraitzen dute. Horren arabera, garrantzia ez dago hainbeste egitura eta instituzio sozialetan eta haien funtzioetan, baizik eta subjektuetan eta horien ekintzaren aspektu subjektiboetan.

3.4.2. Rothman eta Twelvetress-en tipologiak

Jack Rothmanen arabera, Komunitateko Gizarte Langintzan hiru eredu teoriko metodologiko identifika daitezke.

- a) **Gizarte-plangintza:** komunitatean esku-hartzeko eredu honek ingurune jakin bateko gizarte-zerbitzuen koordinazioan jartzen du arreta. Ongizatea babes-sistemetan (gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, osasuna...) planifikatzen eta programak garatzen arituko da. Helburua gizarte-arazoei erantzun tekniko eta arrazoizkoak ematea da kontrolpeko eraldaketan bidez, emaitza eraginkorrak izatea bilatuz. Profesionalek adituaren edo jakitunaren papera hartzen dute. Ikusten dugunez, eredu honek Estatu Batuetan XX. mende hasieran sortutako komunitate antolaketaren edukiak bereganatzen ditu, bai eta funtzionalismoarenak ere.
- b) **Herri-garapena:** eredu honetan, komunitatea unitate geografiko eta sozial gisa hartzen da. Biztanleek komunitatearen hobekuntzarako erabakietan eta ekintzetan parte hartzen dute, eta, horretarako, metodologia parte-hartzaileak erabiltzen dira. Ereduaren funtsezko printzipioak dira: demokrazia, kooperazioa, autolaguntza, lidergotza eta heziketa edo formakuntza. Komunitateko kideen gaitasunak sustatuz, lidergoak bultzatuz eta parte hartzeko prestatuz lortu nahi dira komunitatean aldaketak. Profesionalek trebatzailearen papera hartzen dute garapen prozesuak errazteko. Eredu hau bat dator 1950tik aurrera nazioartean hedatu zen komunitate garapenaren ideia eta praktikarekin.
- c) **Gizarte-ekintza:** eredu honetan komunitatea boterez eta pribilegioz osaturiko egitura hierarkizatu gisa hartzen da, non biztanleria zapaldua baitagoen eta gizarte-bidegabekeria nagusitzen baiten. Komunitateko talde ezberdinen artean interes-gatazka bateraezinak daude. Politika publikoak aldatu eta boterearen banaketan eraldaketak eragiteko, komunitateko talde zapalduekin lan egitea beharrezkoa ikusten da. Parte-hartzea da defendatzen den balio nagusia, eta arreta jartzen zaio bai prozesuari eta bai emaitzak lortzeari ere. Gatazkaren teorian oinarriak dituen eredu honetan, profesionalek ekintzaile eta antolatzailearen papera izango dute, biztanleria norabide zehatz batean aritu dadin.

Alan Twelvetress-ek, Komunitateko Gizarte Langintza bi eredu nagusi identifikatu zituen.

a) Eskola profesionala

- Eskola honetako profesionalak garrantzi handiagoa ematen diote taldeen elkarren arteko laguntzari, presio-taldeen ekintzei baino. Ildo horretan, nahiago dute instituzio publikoekin elkarlanean aritu hari aurka egin baino
- Badakite ekintza komunitarioak dimentsio politikoa duela, baina nahiago dute osagai teknikoei lehentasuna eman, alderdi politikoren batekin identifikatuak izatearen kezka baitaukate. Horregaitik, esku-hartze egokia ziurtatzeko, beharrezkoa deritzote tekniketari ondo prestatuak egoteari eta haiek erabiltzen trebatzeari. Beraz, heziketa iraunkorrari lehentasuna ematen diote: tekniketari, planifikazioari, gainbegiraketari..
- Interes handiagoa daukate esku-hartze komunitarioaren inguruko eztabaida espezifikotari, gizartearen funtzionamenduaren inguruko teoria orokorretan baino.
- Erabiltzen dituzten esku-hartzerako estrategiak Rothman-ek "gizarte-planifikazioa" eremuan proposatzen dituenekin bat datoz.

b) Eskola sozialista

- Eskola honetako profesionalak planteamendu ideologiko kritikoa edo dialektikoa defendatzen dute, gatazkaren teoriari lotutakoa.
- Eredu honetan esku-hartze komunitarioa "klase arteko borroka"ren barnean kokatzen da eta, ildo horretan, profesionalentzat helburua gizarte sozialista bat lortzea da.
- Aurreko helburua lortzeko, profesionalen eginkizuna sozialismoaren korrante ideologikoan kokatzen diren elkarten boterea indartzean datza, modu berezian langileriaaren elkarteak.

- Erabiltzen dituzten esku-hartzerako estrategiak Rothman-ek “gizarte-ekintza” ereduari proposatzen dituenekin bat datoz, besteak beste: klasearteko borroka eta komunitateko borroka bateratzearen alde egitea eta gizarte-arazoaren analisi globalak bultzatzeko komunitateko taldeak kontzientziatzea.

4. GAIA: KOMUNITATEKO GIZARTE LANGINTZAREN ERRONKA: PARTE-HARTZEA

4.1. Parte-hartzearen bideak: demokrazia ordezkatzaitetik demokrazia zuzenera

Estatu demokratikoetan, gizarte zibila eta estatua izaten dira komunitatearen ongizatearen eragile nagusiak, horregatik elkar ulertzeko eta elkarrekin jartutako betebeharra izango dute helburu hori lortzeko.

Gizarte zibila ekintza kolektiboan antolatua dagoen biztanleria da, eremu pribatuaren eta askatasun indibidualaren adierazlea dena (elkarrekin eta herri eta gizarte mugimenduak).

Estatua, administrazio publikoaren entitateen multzoa litzateke, arau eta instituzio formalen adierazlea dena.

Komunitateko Gizarte Langintzaren ikuspegitik, parte-hartzea biztanleriaren eskubidea eta erantzukizuna da, erabaki politikoetan eta administrazioaren planetan, programetan nahiz proiektuetan eragina izateko.

Demokrazia ordezkatzaitetan biztanleriaren parte-hartzea hurrengo modutan bideratzen da nagusiki:

- *Eskubideen gauzatze indibiduala*: hauteskundeetan alderdi politikoak bozkatzuz batez ere, herritargoaren ordezkariak bezala hartzen direnak. Horretaz gain, iradokizunak, erreklamazioak eta kexak aurkeztuz, batik bat.
- *Parte-hartze planifikatua*: tokiko administrazioaren erakundeetan parte hartzea gizarte zibilaren ordezkari gisa, hala nola udaletako gizarte-kontseiluetan.

- *Boluntariotza*: elkarteetan parte hartzean datza. Boluntariotza epe erdira edo luzera mantentzen den inplikazioa da, elkartasunaren printzipioan oinarritzen den elkarte baten barnean eta programa edo proiektu bati lotuta.
- *Gizarte-mugimenduak*: arazo konkretu bati erantzuteko sortzen den herritarren mobilizazio batean parte hartzean datza. Gizarte-mugimenduek aldarrikapen-izaera dute, eta gehiegikeriari, bidegabekeriei edo gizarte-behar bati aurre egiteko sortzen dira.

Azken hamarkadetan krisialdi bat ikusten ari gara, botere publiko zein erakundeen balioa eta legitimotasuna zalantzan jartzen ari da gero eta gehiago, batez ere alderdi politikoena. Horren atzean herritarren parte-hartzerako motibazio galera dago.

Demokrazia ordezkatzailerik dituen gabezien ondorioz, parte-hartze demokratikoa edo zuzenaren inguruko hausnarketara garatu da azken urteetan.

Parte-hartze demokratikoa herritarren parte-hartze zuzenagoatzat hartzen da; ez daude soilik alderdi politiko jakin batzuk ordezkatzuta, baizik eta herritarrek zuzenean bereganatzen dute errealitatean eragina izateko protagonismoa, haien eskubide eta erantzukizuna den heinean. Parte-hartze demokratikorako herritarrak botoa emateaz harago doazen bideak zabalik eduki behar ditu. Izan ere, herritarren iritziak jasotzeaz gainera, erabakietan parte hartzera bultzatzen du demokrazia parte-hartzaileak.

Parte-hartze zuzena edo demokratikoaren tresnak hurrengoak dira: kontsultak, erreferendumak, aurrekontu parte-hartzaileak, etab.

Parte-hartze demokratikoaren onurak hurrengoak dira:

- Kultura politiko jakin bat sortzen laguntzea
- Guztion esperientziak eta gaitasunak aprobetxatzea
- Hartutako erabakien zilegitasuna handitzea
- Gaitasun berriak garatzea
- Arazoei irtenbideak bilatzeko sormena sustatzea
- Pertsonen eta kolektiboen bizi-kalitatea hobetzea

4.2. Parte-hartzea elkarteen bidez

Elkarteak zentzu zabalean ulertuta, komunitateko kideek parte hartzeko moduaren adierazle gisa har ditzakegu.

Euskadiren kasuan, Elkarteei buruzko Legeak, honela definitu: “pertsona fisikoek (gutxienez 3) aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da”. Ekimen horiek helburu jakin batzuk lortzeko egingo dira (irakaskuntzan, kulturean, artean, ongintzan, eta abar).

Lege horretatik kanpo gelditzen dira: diruzko irabaziak lortzea eta bazkideen artean banatzea helburu dutenak eta alderdi politikoak eta sindikatuak; elkarte erlijiosoak; eta lanbide-elkarteak.

Elkartegintzari buruzko legediak boluntarioria sustatzeko eta arautzeko neurriak zehazteaz gain, elkarte eta administrazioaren arteko harramanak arautzen ditu.

a) Boluntarioria eta ekimen solidarioa

Boluntarioria gizartean parte hartzeko modu bat da, baina parte-hartze mota guztiak ez lirateke boluntarioriazkoak izango. Boluntarioria, gaur egun, lan desinteresatu eta altruista izateaz gain, ondorio juridikoak ere baditu.

Boluntarioriaz baldintza hauek bete behar ditu:

- Libreza izan behar du, parte-hartzaileen ekimenez sortua eta kontzienteki eta borondatez gauzatua.
- Autonomia izan behar du, botere publiko eta interes ekonomikoen mende ez dagoena.
- Bidezkoa izan behar du, giza eskubideen aldeko errespetuan oinarritua.
- Antolatua izan behar du, beste pertsona batzuekin sortua, gutxieneko egitura bat duen eta elkarlanean diharduen irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakunde baten esparruan.
- Solidarioa izan behar du, pertsonaren eta gizartearen aldetaren aldekoa.
- Eskuzabala izan behar du, helburu partikularrik gabekoa eta interes orokorraren aldekoa.
- Doakoa izan behar du, ordainketarik eta kontratupeko lan-harremanik gabekoa, eta ezin da izan betebeharrak pertsonal edo juridikoen ondorioa.

- Osagarria izan behar du; ez ditu zerbitzu profesional ordainduak ordezkatu, ezta herrierakundeen ekintza ere.

Ekimen boluntarioak lau arlo nagusitan nabarmendu ditzazkegu:

- Osasuna eta bizi kalitatea
- Ingurugiroa
- Gizarte zerbitzuak eta kultura
- Nazioarteko garapena eta lankidetzeta

Boluntariotza Komunitateko gizarte-langintzarentzat tresna garrantzitsua da, eta oinarritzeko gizarte-zerbitzuentzat hainbat ekintza egiteko edo osatzeko baliabidea da.

b) Elkarteen eta administrazioaren arteko harremanak

Euskal Gizarte Zerbitzuen Legeak (2008) gizarte-zerbitzuen printzipio nagusien artean partehartzea eta administrazio publikoaren eta ekimen pribatuaren arteko elkarlana jasotzen ditu.

Bertan aipatzen da:

- Gizarte-zerbitzuetako sistema herri-agintarien erantzukizuna da, eta hori betetzeko ekimen pribatuaren laguntza izango dute. Beraz, herri-agintarien ardura da irabazteko xederik gabeko ekimen pribatuaren parte-hartzea sustatzea gizarte-zerbitzuak emateko.
- Herri-agintariak elkartasuna sustatuko dute norbanakoen eta giza taldeen harremanetan, baita boluntarioei eta komunitatearen aldeko ekintzei dagokienez ere.
- Herri-agintariak herritarrek gizarte-zerbitzuetan parte-hartze demokratikoa izan dezaten ahaleginduko dira.

Ikusi dugunez, elkarteak, pertsonak eta taldeak gizarte-mailan parte hartzeko tresnak dira, herritarren eta estatuaren arteko harremana ahalbidetzen dutenak eta gizarte-aniztasunaren adierazpen nagusi bihurtu direnak.

Hala ere, ohartu behar gara politika neoliberalen eraginpean eman diren privatizazio prozesuen ondorioz, azken hamarkadatan izaera ezberdineko entitate pribatuak sortu direla gizarte mailan aritzeko.

4. Taula: Administrazio publikoaren eta eragile pribatuen arteko harremana		
Harreman mota	Deskribapena	Ezaugarriak
Diru-laguntzak	-Administrazioen aldetik elkarteei diru-laguntzak eskaintzea, deialdi publikoen bitartez, haiek diseinaturiko ekintzak aurrera eraman ditzaten.	- Titulartasun pribatua - Ekintzen ezegonkortasuna - Askatasun-maila altua elkartearentzat
Elkarlanerako hitzarmenak	-Administrazioaren aldetik elkarte zehatzei hitzarmenak eskaintzea, deialdi publikorik gabe, orain arte laguntzen bitartez gauzatu dituzten proiektuak betetzen jarraitzeko.	- Titulartasun publikoa - Ekintzen egonkortasuna - Elkartearen askatasun-mailaren murrizketa
Kontratuak	-Administrazioen aldetik elkarte eta enpresei kontratuak eskaintzea, lehiaketa publikoen bitartez, zerbitzu publikoak kudeatzeko.	- Titulartasun publikoa - Ekintzen egonkortasuna - Elkartearen askatasun-galera

4.4. Parte-hartzea gizarte-mugimenduen bidez

Komunitateko Gizarte Langintzaren beste funtsezko eragileak gizarte-mugimenduak dira, ekintza kolektiboaren espresio historikoa direnak.

Gizarte-mugimenduen ezaugarriei dagokionez, alde batetik, denboran jarraipena dugu: ezaugarri hau gizarte-mugimenduen eta gizarte-aldaketarako prozesu edo proiektuen arteko harremanaren ondorioa da, eta horrek bereizten ditu puntualagoak edo noizbehinkakoagoak diren ekintzetatik (grebak, manifestazioak, kale-gatazkak...).

Bestetik, gizarte mugimenduek eskaintzen duten gizarte-integrazioaren maila altua dugu: beste giza talde batzuekin konparatuta barne-koheresio handia dago gizarte-mugimenduetan. Parte-hartzaileek ideia komunak eta kontzientzia kolektiboa dituzte, bai eta kidetasun eta elkartasun sentimendu oso indartsuak ere.

Zenbait gizarte-mugimenduen ezaugarrien artean izaera askatzailea aurki dezakegu. Martínez, Casado eta Ibarraren (2012) arabera, gizarte mugimenduak askatzaileak dira baldin eta haien lan lerroen artean hurrengoak agertzen diren: bizitzaren iraunkortasuna, aniztasunaren defentsa, parte-hartze demokratikoa, kolektiboa eta

komunitarioa denaren garrantzia, egunerokotasunaren politizazioa eta konfrontazioaren estrategia.

Gizarte mugimendu ezberdinak: langile mugimendua, mugimendu feminista, nekazari mugimendua, bakearen aldeko eta militarismoaren kontrako mugimendua, etab.

4.5. Parte-hartzearen oztopoak eta baldintzak

Neoliberalismoak bultzatzen duen muturreko indibidualismoaren indarrak egungo arazoak ikuspuntu kolektibo batetik ulertzea oztopatzen digu, eta, horri lotuta, zailtasunak dauzkagu parte-hartze kolektiboa sustatzeko. Praktikan, parte hartzeari ekiten diogunean zenbait zailtasun edo oztopo agertu ohi dira, besteak beste:

- Egoera pertsonal edo kolektibo ezegonkorak
- Komunitateko kideen prestakuntza eta informazio gabezia
- Egoeraren azterketa egiteko eta erabakiak hartzeko gaitasun falta
- Prozesuaren geldotasunak motibazioa gutxitzea
- Parte-hartzearen esanahiari buruzko ulerkerak ezberdinak
- Parte hartzeko baliabide eta bide eza
- Komunitateko baliabideen arteko koordinazio falta
- Administrazio publikoak boterea partekatzeari uko egitea
- Gizarte zibilak administrazioarekiko mesfidantza eta menpekotasuna ekiditu nahi izatea

Herritarren parte-hartzea izanik Komunitateko Gizarte Langintzaren eskuhartzea legitimatzen duen elementua, hori bultzatu ezean esku-hartze komunitarioaren dimentsioa galduko dugu.

Gizarte langileak herritarrak lagundu eta trebatu behar ditu haien parte-hartzea erreala eta eraginkorra izan dadin. Funtzio hori betetzeko gizarte langilea begirunez eta gardentasunez jokatu beharko du. Era berean, kontuan izan beharko du parte-hartzea ezin dela inoiz inposatu, azken erabakia beti norbanakoarena izango da eta. Komunitateko kideen mobilizazioa eta parte-hartzea lortzeko, gizarte langileak hiru baldintza ematen direla bermatzeko helburua du: a) herritarrek parte hartu nahi izatea (motibazioa); b) herritarrek parte hartu ahal izatea (aukera); eta c) herritarrek parte hartzen jakitea (ezagutza eta trebetasuna).

1. GAIA

Gizarte langintzaren ikuspuntutik komunitatearen ezaugarriak

- Leku geografiko zehatza hartzen du
- Historikoa eta dinamikoa da
- Bertan ohiko giza harreman estuak garatzen dira, denboran jarraipena dutenak.
- Kideek testuinguru historiko, sozial, kultural eta ekonomiko berean murgildurik daude eta zenbait interes, helburu, behar, arazo, bizipen eta proiektio partekatzen dituzte
- Talde ezberdinetaz osatzen da, haien artean interakzioa dutenak eta ekintza kolektiboak aurrera eramaten dituztenak
- Kideek kidesun-kontzientzia edo pertenezia sentimendua garatzen dute

- Gizarte inklusio-maila handia ahalbidetzen du, bertan harremanak intentsitate altukoak baitira

Gizarte-sarea eta laguntza-sarea

- Gizarte-sarea pertsonak haien testuinguruarekin sortzen duten harremanen multzoa da.
- Laguntza-sarea laguntza-funtzioa betetzen duen harreman horien azpimultzoa da.
- ONDORIOZ, gizarte-sarea handitzean, laguntza-sarea handitu daiteke.
- Laguntza-sarearen efektu positiboak, pertsonak gizarte ingurunearekin sortzen duen interakzioan elkar trukutzen diren balaibideak dira.

2. GAIA

Zer ekarpen egiten dio Gizarte Langintzari, Komunitateko Ongizatearen Kontseiluak?

- Eragile ezberdinen arteko kooperazio eta koordinazio printzipioak bereganatzea.

3. GAIA

Zer da komunitateko Gizarte Langintza?

- Komunitateko Gizarte Langintza, komunitate bateko ongizatea lortzea helburu duen gizarte-ekintza profesionala da, non biztanleen parte hartze zuzena eta aktiboa ezinbestekoa baita komunitateari dagozkion arazoan azterketan eta horiei aurre egiteko erabakietan.
- Komunitatea bera abiapuntu duen prozesua da, ekimen profesionalaren helburuak lortzeko bertako baliabideak eta gaitasunak sustatzen dituena.

Komunitateko Gizarte Langilearen funtzioak

- Komunitatean dauden beharrak eta arazoak identifikatzen lagundu, horiei erantzuna emateko baliabideak sustatuz
- Komunitatearekin batera lan egitea
- Komunitatearekin harreman jarraia izatea: lana luzarokoa dela ulertuz
- Komunitatearen parte-hartze eta erritmoa errespetatzea
- Ez du bakarrik esku-hartzen, beste profesionalekin elkarlanean dago

- *Ikuspegi tradizional-kontserbadorea*: arazoei aurre egiteko *erreforma* proposatzen du
- *Ikuspegi erradikala*: arazoei aurre egiteko, errealitatea *errotik* eta erabat *eraldatu* behar dela defendatzen du

Gizarte arazoaren iturriak

- *Desberdintasunak botere-banaketa*: komunitatearen barneko botere banaketa desberdintasunak eman ohi dira: ekonomikoak, sozialak, politikoak... Boterearen banaketa eta erabilera desigualarekin batera gizarte arazoak eta gatazkak agertzen dira. Kasu honetan, KGLak botere-sistema justuago bat sortzen lagunduko du.
- *Komunikazio eta elkarbizitza arazoak*: komunikazioa pertzepzioen eta esanahien adostasunaren ondorioa da, eta egoera ezberdinetan dauden pertsonak normalean ez dituzte errealitateari buruzko ulkerak eta pertzepzio berdinak. Kasu honetan, ezberdinen artean komunikaziorako eta elkarbizitzarako baliabideak eskainiko dira.
- *Beharren eta baliabideen arteko desorekak*: komunitateko kideen beharren eta horiek asetzeko dauden baliabideen arteko aldeari egiten dio erreferentzia. Gizarte langintzaren xedea behar-baliabide binomioaren arteko desorekaren ondorioz sortutako arazoak gainditzera bideratu behar dela proposatzen da.

Jack Rothman-en sailkapeneko puntuak aipatu

- *Gizarte-plangintza*: eredu honek ingurune jakin bateko gizarte-zerbitzuen kordinazioan jartzen du arreta. Helburua gizarte-arazoei erantzun tekniko eta arrazoizkoak ematea da. Profesionalek adituaren edo jakitunaren papera hartzen dute. Komunitate antolaketaren edukiak bereganatzen ditu, eta baita funtzionalismoaren ere.
- *Herri-garapena*: eredu honetan, komunitatea unitate geografiko eta sozial gisa hartzen da. Biztanleek komunitatearen erabakietan parte hartu, metodologia parte-hartzaileak erabiliz. Funtsezko printzipioak: demokrazia, kooperazioa, autolaguntza, lidergotza eta heziketa edo formakuntza dira.

Profesionalek trebatzailearen papera hartzen dute. Komunitate garapenaren ideia eta praktikarekin bat dator.

- Gizarte-ekintza: eredu honetan, komunitatea boterez eta pribilegioz osaturiko egitura hierarkizatu gisa hartzen da, non biztanleria zapaldua dagoen eta gizarte-bidegabekeria nagusitzen da. Interes-gatazkak daude. Komunitateko talde zapalduekin lan egitea beharrezkoa. Gatazken teorian oinarrituta.

Twelvetress-en ereduak

- *ESKOLA PROFESIONALA*
 - Garrantzi handiagoa ematen diote taldeen arteko laguntzari, presio-taldeen ekintzei baino. Nahiago dute instituzio publikoekin elkarlanean aritzea, hari aurka egitea baino.
 - Osagai teknikoari lehentasuna ematen diete. Esku-hartze egokia ziurtatzeko, beharrezkoa deritzote teknikan ondo prestatuak egoteari. Heziketa iraunkorrari lehentasuna ematen diote.
 - Interes handiagoa daukate esku-hartze komunitarioaren inguruko eztabaidetan, gizartearen funtzionamenduaren inguruko teoria orokorretan baino
 - Erabilitako estrategiak, Rothman-ek “gizarte-planifikazioa” ereduan proposatutakoekin bat datoz.
- *ESKOLA SOZIALISTA*
 - Planteamendu ideologiko kritikoa edo dialektikoa defendatu, gatazken teoriari lotutakoa.
 - Esku-hartze komunitarioa “klase arteko borroka”ren barnean kokatzen da, profesionalentzat helburua gizarte sozialista lortzea izanik.
 - Profesionalen eginkizuna sozialismoaren korrante ideologikoan kokatzen diren elkarten boterea indartzean datza, langileriaren elkarteak.
 - Erabilitako estrategiak, Rothman-ek “gizarte-ekintza” ereduan proposatutakoekin bat datoz.

4. GAIA

Nola ematen da biztanleriaren parte-hartzea demokrazia ordezkatzailatan

- *Eskubideen gauzatze indibiduala*: hauteskundeetan alderdi politikoa bozkatzuz

- *Parte-hartze planifikatua*: administrazioaren erakundeetan parte hartzen
- *Boluntarioria*: elkarteetan parte hartzen
- *Gizarte-mugimenduak*: herritarren mobilizazioetan parte hartzen

Parte-hartze demokratiko edo zuzenaren onurak

- Kutura politiko jakin bat sortzen laguntzea
- Guztion esperientziak eta gaitasunak aprobetxatzea
- Hartutako erabakien zilegitasuna handitzea
- Gaitasun berriak garatzea
- Arazoei irtenbideak bilatzeko sormena sustatzea
- Pertsonen eta kolektiboaren bizi-kalitatea hobetzea

Boluntarioriaz bete beharreko baldintzak

- Librea
- Autonomia
- Solidarioa
- Bidezkoa
- Antolatua
- Eskuzabala
- Doakoa
- Osagarria

Elkarte eta administrazio publikoen arteko harremanak

- *Diru laguntzak*: administrazioaren aldetik elkartei diru-laguntzak eskaintzea, deialdi publikoen bitartez, haiek diseinaturiko ekintzak aurrera eraman ditzaten.
- *Elkarlanerako hitzarmenak*: administrazioaren aldetik elkarte zehatzei hitzarmenak eskaintzea, deialdi publikorik gabe, orain arte laguntzen bitartez gauzatu dituzten proiektuak betetzen jarraitzeko.
- *Kontratuak*: administrazioaren aldetik elkarte eta enpresei kontratuak eskaintzea, lehiaketa publikoen bitartez, zerbitzu publikoak kudeatzeko.